



EBAZPENA, 2017ko martxoaren 20koa, Hezkuntza sailburuordearena. Horren bidez, deialdia egiten zaie Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxe publikoei, ikastetxearen Hizkuntza Proiektu eleaniztunak garatzeko eta, proiektu horiei lotuta, atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartu duen “Heziberri 2020” Planak haxe du helburu: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin. Plan horretan sartuta dago “Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren markoa”, jardunbide estrategien ildo nagusiak biltzen dituen proiektua. Proiektu horrek paradigmaren aldaketa nabarmena dakar, abiapuntua kompetentzietan oinarritzen den hezkuntza delako. Kompetentzien araberako pedagogian, ikasitako jakintzak transferitu, artikulatu eta konbinatu egiten da, egoera funtzional konplexuak konpontzeko.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen 236/2015 Dekretuak dio zeharkako kompetentzietako bat hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia dela, hau da, hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan. Eta diziplina barruko oinarrizko kompetentzietatik hartzen du hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia, hots, hitzeko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea – euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez –, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespetatuz, bai eta Literatura-hezkuntza garatzea ere, nor bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.

Horrez gain, aipaturiko 236/2015 Dekretuan ezartzen denez, hezkuntza-eskumenak dituen sailak elebitasuna bultzatuko du hezkuntza eleaniztun baten barruan, hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen lagunduz. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatuko du euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean komunikazio-kompetentzia praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere nahikoa. Hori guztia, atzerriko bigarren hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak lortzea baztertu gabe, hizkuntza-proiektuan hala jasoa duten ikastetxeetan. Halaber, Dekretuak dio Sailak hizkuntzen trataera integratua eta integrala ere bultzatuko duela, komunikatzeko kompetentzia eleaniztun bat lortzeko asmoz.

Hori guztia, honako hauetan jasotako xedapenak betetzeko: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Euskal Herriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena; eta, era berean, duela gutxi argitaratutako abenduaren 22ko 236/2015 Dekretua betetzeko ere, zeinaren bidez, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen baita.

Testuinguru horretan, aipaturiko 236/2015 Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarriari jarraiki, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak EAEko hezkuntza-sistema Hobetzeko Plana onartu du. Hobekuntza Plan horrek aurreikusten dituen lerro estrategikoetako bat “Elebitasuna hezkuntza eleaniztunaren baitan” da, eta beste bat “Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza”. Unibertsitateaz kanpoko irakasleen etengabeko prestakuntzarako 2014-2017 aldirako Prest Gara Planaren barruan ere lehentasuneko jardun-ildotzat jo dira. Ebidentzia guztien



arabera, lotura estua dago curriculumean hizkuntza batean emandako ordu-kopuruaren eta hizkuntza horretan lortzen den maila aurrerakuntzaren artean.

Hezkuntza eleaniztunaren esparruan elebitasuna sendotze aldera (pixkanaka ikasgai kurrikularrak atzerriko hizkuntzan irakastea orokor bihurtu arte) beharrezkoa da ikasleen hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna hobetzea, eta, horretarako, irakasleen prestakuntza hobetzea atzerriko hizkuntzan, baita eskola-komunitate bakoitza bere testuinguruan kokatzea ere, eta kuantifikatzea zer eragin duten ikasleengan, irakasleengan eta hezkuntza-komunitatean, hasierako egoerarekiko aldaketa hauteman ahal izateko. Horregatik, garrantzitsua da ikastetxeek beren hizkuntza-proiektua izatea, hezkuntza-proiektuaren barruan eta testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuta, metodologia-, prestakuntza- eta antolaketa-alderdiak hizkuntzen tratamendu integratu eta integralaren inguruan zehatz ditzan eta hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien neurriak-planifikatu ditzan, euskara ardatz nagusi hartuta.

Gauzak horrela, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenean, eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Xedea eta aurrekontuko diru-hornidura

1. Agindu honen xedea da bere babesean diru-hornidurak ematea; hornidura horiek 2017-2018 ikasturtean Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxe publikoek hizkuntza-proiektu eleaniztunak inplementatzera eta, proiektu horiei lotuta, irakasleei atzerriko hizkuntzako prestakuntza ematera bideratuta egongo dira.

2. Xede hori lortzeko, deialdi honetan zehaztutako giza baliabideak eta laguntzak baliatuko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura, 708.000 euro bideratuko dira guztira.

3. Aurreko atalean finkatutako diru-zenbateko osoa handitu ahal izango da, kontuan hartuta egin beharreko eleaniztasuneranzko hizkuntza-proiektuen kopuru osoa, Hezkuntza Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren geratzen diren aurrekontu-aukeren arabera, eta haiek ebatzi baino lehen, Hezkuntza sailburuordeak emango duen eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den ebazpen egokiaren bidez.

4. Deialdi hau lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da.

2. artikulua.- Hartzaileak.

Deialdi honetan parte hartu ahaliko dute Euskal Autonomia Erkidegoko Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko ikastetxe publikoek euren hizkuntza-proiektu eleaniztuna) dagoeneko abiarazita dutenak eta 2017-2018 ikasturtean abiarazteko asmoa dutenak.



3. artikulua. – Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

1. Deialdi honen bidez diruz lagunduko da hizkuntza proiektu eleanitza abiarazteko irakasleek behar duten prestakuntza. Hau da diruz lagun daitezkeen hizkuntza-prestakuntza:

- Atzerriko hizkuntza-prestakuntza, bai atzerriko hizkuntzetan ezagupen-maila adierazten duten agiriak lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, bai atzerriko hizkuntzetan edukiak irakasteko behar den hizkuntza- eta pedagogia-konpetentzia lortzea xede dutenak.
- Hizkuntzetan adituak diren nahiz ez diren irakasleen hizkuntza- eta pedagogia-eguneratzea lortzeko prestakuntza.

2. Hizkuntza-proiektu batik eleaniztuna gutxienez honako atal hauek izan beharko ditu, bi urterako proiektzioa kontuan hartuta:

- o Diagnostikoan azalduko da: hizkuntzekin harremana duten esperientziak, eta esperientzia horietan parte hartu duten ikasle-taldeak eta ikasle horiek izan dituzten emaitzak diagnosi-ebaluazioetan euskara, gaztelania eta ingelesean; eta atzerriko hizkuntzetan tituluak dituzten irakasleak, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko, B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak.
- o Irakasleen komunikatzeko konpetentzia hobetze aldera, epe ertaineko eta epe luzeko helburuak.
- o Ikastetxeko proiektu eleanitza garatzeko plangintza, bi urteko aldirako, urtez urte banatuta, kontuan harturik ikastetxe bakoitzaren esparruan hizkuntzen irakaskuntzari eta hizkuntzen erabilerari loturiko arlo guztiak.
 - Horren ildotik, adierazi beharko da zein mailatan eta zein taldeetan irakatsiko dira ikasgaiak atzerriko hizkuntzan eta ordu-kopurua: zenbat ordu atzerriko hizkuntza arloa emateko eta zenbat ordu ikasgaiak emateko atzerriko hizkuntza batean.
 - Atzerriko hizkuntzan irakatsiko diren arloak edo irakasgaiak aukeratzeko orduan, irakasleek kontuan hartuko dute hau: ikasle-talde baten barruan, atzerriko hizkuntzan emandako ordu-kopurua berdina izatea denentzat, zein irakasgai aukeratzan dituzten kontuan izan gabe.
 - Euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntzan ematen diren ordu eta arloei buruz, hasierako egoera eta aurreikusitako progresioa zehaztuko da. Aipaturiko plangintzak jaso beharko du, gutxienez, beste arlo edo irakasgai bat (edo ordu-kopuru baliokidea) atzerriko hizkuntzan emango dela, atzerriko hizkuntzako arloaz gain, ikastetxearen hizkuntza-proiektu eleaniztunak ezartzen dituen baldintzetan.
 - Proiektu eleanitzean islatuko da atzerriko hizkuntza emateko orduen igoeratan proiektuak izango duen eragina. Hazkunde horrek ezingo du A eta B ereduetan euskaraz ematen diren orduak urritzea ekarri. Hizkuntza-proiektu eleanitza aurrera daraman ikastetxeak adierazi beharko du, parte hartzen duen talde bakoitzari buruz, ea zer irakasgairi eta zer emate-hizkuntzari kendu zaizkion orduak, atzerriko hizkuntzan edukiak emateko.
 - Proiektuaren garapenean parte hartuko duten ikastetxeko irakasleak zehaztuko dira



proiektuan eta, era berean, proiektua garatzeko ikastetxeak aurreikusten dituen beharrianak; atzerriko hizkuntzan arloak emateko, egiaztatutako hizkuntza-konpetentziak dituzten irakasleei lotutakoak, ikastetxeko lanpostuen zerrenda prestatzen denean kontuan hartzeko.

- Hizkuntzen trataera integrala eta integratua bermatzeko, hizkuntza-arloak edo -irakasgaiak ematen dituzten irakasleen koordinazio-saioak zehaztuko dira.
- Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-jarduerak:
 - Atzerriko hizkuntza-prestakuntza, bai atzerriko hizkuntzetan ezagupen-maila adierazten duten agiriak lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, bai atzerriko hizkuntzetan edukiak irakasteko behar den hizkuntza- eta pedagogia-konpetentzia lortzea xede dutenak
 - Hizkuntzetan espezialistak diren nahiz ez diren irakasleen hizkuntza- eta pedagogia-eguneratzea lortzeko hizkuntza-prestakuntza.
 - Hizkuntzen trataera integratua eta integralaren inguruko prestakuntza.

Prestakuntza-jarduerak jasagarriak izate aldera, eskualde bereko ikastetxeek atzerriko hizkuntza ikasteko ikastetxe bi edo gehiagoren arteko ikastaro bateratuak antolatzea proposatu dezakete. Horrela eginez gero, ikastaroetan parte hartuko duen ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektuan zehaztu beharko du prestakuntza-jardueren proposamena, eta gastutik zenbat dagokion.

- Gauzatzeko egutegia. Proiektu garatzeko eta ezartzeko faseak eta denbora-antolaketa.
- Etapen artean, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara edo Bigarren Hezkuntzatik Batxilergora hizkuntza-proiektu eleaniztunari jarraitasuna emateko estrategiak.
- Proiektua ebaluatzeko eta emaitzak neurtzeko irizpideak eta eragin-adierazleak: zenbat ikasle-taldetan ezartzen den; parte hartzen duten ikastetxeko irakasleen kopurua eta ehunekoa; proiektua bukatu ondoren B1, B2 eta C1 tituluak lortzen dituzten irakasleen kopurua eta ehunekoa; eta zenbat ordu gehiago ematen diren atzerriko hizkuntzan irakasgaiak.

4. artikulua.- Baldintzak eta haien egiaztapena

Ikastetxe eskatzaileek jarraian zehaztutako eskakizunak bete beharko dituzte:

- Bi urteko aldirako hizkuntza-proiektu eleaniztuna aurkeztea, deialdi honetan eta 236/2015 Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Lau ikasturtez Hizkuntza-proiektu eleaniztuna aurrera eraman duten ikastetxeetako lanpostuak LPZ-en atzerriko hizkuntzan perfilatuko dira, beraz ikastetxeak deialdi honetatik at geldituko dira.
- 2014/2015, 2015/2016 eta 2016/2017 ikasturteko deialdian proiektu eleaniztuna aurkeztu zuten ikastetxeek, eskaera aurkeztu beharko dute proiektuaren bigarren urtea garatzeko, 2017-2018 ikasturtean zer egingo duten zehaztuz.
- Beren hizkuntza-proiektua 2017-2018 ikasturtean lehen aldiz abiarazten duten ikastetxeek 2017ko azaroaren 15era arteko epemuga izango dute proiektua aurkezteko. Ikastetxe horiek, eskaerari



atxikita, beren lan-plangintza aurkeztuko dute baloratzeko, eta bertan jasoko dute hizkuntza-proiektua epearen barruan aurkezteko zein helburu, eginkizun eta faseei helduko dieten.

- Ikastetxe eskatzaileak bukatu badu bi urteko aldirako proiektuaren garapena eta jarraitzeko asmoa badu, proiektu berri bat aurkeztu beharko du, atzerriko hizkuntzan ordu gehiago ematea aurreikusten duena eta gehienez bi urtetan garatuko dena. Proiektu eleaniztun berri horretan abiapuntutzat hartuko dira aurreko proiektuaren ebaluazioa eta emaitzak. Ikastetxe horiek eskaerari atxikita beren lan-plangintza aurkeztuko dute, bertan jasoko dituzte betebeharreko helburuak eta eginkizunak ikastetxeko beste etapa edota mailen artean hizkuntza-proiektu eleanitza hedatzen jarraitzeko.
- a) Fase ezberdinei helduko dieten Hizkuntza-proiektu eleaniztun guztiek islatuko dute aukeratutako atzerriko hizkuntzan murgiltzeko orduen igoera ikasle- talde parte-hartzaileentzat. Hazkunde horrek ezingo du A eta B ereduetan euskaraz ematen diren orduen urritzea ekarri. Era berean, A ereduan arlo edo irakasgai bat (edo ordu-kopuru baliokidea) euskaraz emango dela ziurtatuko da, Euskara eta Euskal Literatura irakasgaiak gain.
- b) Prestakuntza zehaztea eta aurreikusitako prestakuntzan parte hartzeko konpromisoa agertu duten irakasleen zerrenda ematea.
- c) Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailako edo maila altuagoko atzerriko hizkuntzen titulua duten irakasleek ikastetxeko proiektu eleaniztunean parte hartuko dutela bermatzea.
- d) Ikastetxeko ordezkaritza-organo nagusiaren onespena izatea proiektua gauzatzeari dagokionez, eta akordio hori ikastetxeko Urteko Planean jasotzea.
- e) Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuko koordinatzailea izendatzea beharrezko ordu-kredituak emango zaizkio koordinazio-lanak betetzeko.
- f) Ikastetxeko Batzorde bat osatzea lan-prozesuaren jarraipena egiteko. Batzorde horretan ziklo edo departamentu guztien ordezkariek parte hartu beharko dute eta hizkuntza-proiektu eleanitzaren aldeko txostena egin beharko du.

5. artikulua. – Giza baliabideak eta laguntzak

1. Ikastetxe onuradunei astean 6 orduko ordu-kreditua emango zaie, bi ikasturteetan, hizkuntza-proiektu eleanitzaren garapen eta inplementaziorako. Ikastetxe onuraduna euskarari lotutako hizkuntza-normalkuntzako proiektua garatzen ari bada era berean, gehienez 9 orduko ordu-kreditua jasoko du, eta proiektu biak ikastetxeko hizkuntza-proiektuan bateratuko dira.

2. Ikastetxeek eskualdeko Berritzegunearen zuzeneko aholkularitza izango dute eskura prozesu osoan zehar, hizkuntzen ikuspegi bateratua eta osoa kontuan izanik, alderdi hauetan: Hizkuntza Proiektuaren garapena, atzerriko hizkuntzan irakasteko estrategien prestakuntzan eta hizkuntzen didaktikaren inguruko prestakuntzan.

3. Ikastetxe onuradunek lehentasuna izango dute hizkuntza-laguntzaileen esleipena egiterakoan.

6. artikulua.- Diru-hornidura

1. Beren irakasleentzat atzerriko hizkuntzetako prestakuntza- eta pedagogia-eguneraketa- jarduerak, hizkuntza-proiektu eleanitza garatu eta abiarazteko beharrezkoak direnak, aurreikusi dituzten ikastetxe onuradunek gastu horri aurre egiteko diru-hornidura jaso ahalko dute.

2. Ikastetxe bakoitzari emandako diru-horniduraren zenbateko osoak ikastetxeak estali aurkeztutako hizkuntza-proiektu eleanitzean jasotako prestakuntza-jardueren kostu osoa ahal izango du. Gehienez ere, 100 euro



ordainduko dira proiektuan jasotako prestakuntza-jardueretan emandako ordu bakoitzeko. Jarduera emateari egotzitako gastu gisara zenbatu ahalko dira honako hauek: batetik, prestakuntza-jardueraren kostua, prestakuntza ematen duen erakundeak aurkeztutako aurrekontuaren arabera; eta, bestetik, irakasle emailearen lekualdatze-dietak edo ostatu- edo jan-edanetarako gastuak, prestakuntza-erakundeaz kanpokoa denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jarduerari egotzitako kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen lekualdatze- edo jan-edanetarako gastuak.

3. Aurrekontu-eskuragarritasunik ez dagoela-eta eskatzaileek eskatutako diru-kopuru osoa ematea ezinezkoa bada, onartutako hizkuntza-proiektu eleaniztuna duen ikastetxe eskatzaile bakoitzari zenbateko bat esleituko zaio, aurreko atalean ezarritakoaz gainera III. eranskinean jasotako baremoa aplikatu ondoren lortutako puntuak aintzat hartuta, bai eta irizpide hauek ere:

- a) Prestakuntzan parte hartzen duten irakasleen ehunekoa, irakasle guztiekiko, eta zenbat taldetan aplikatuko den.
- b) Hizkuntza-proiektu eleaniztuna gauzatzean, irakasleak prestatzeko aurreikusten diren jardueren eta haietarako orduen kopuru osoa.
- c) B2 maila edo maila altuagoa erdiesteko prestakuntza jardueretan parte hartzen duten irakasleen kopurua, hala nola, edukien bidez atzerriko hizkuntzetan eskolak emateko pedagogia-eguneraketa prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten irakasleena.

7. artikulua. – Eskaeren aurkezpena

1. Ikastetxeek 2017ko maiatzaren 8ra arteko epemuga, egun hori barne, izango dute eskariak aurkezteko.

2. Eskaria bide elektronikoz aurkeztuko da, guztiz eta behar bezala betetako idazki normalizatu baten bidez. Eskabide-eredua euskadi.eus webguneko egoitza elektronikoko honetan egongo da eskuragarri:
<https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/eleaniztasunerantz-2017>

3. Ikastetxeak ikastetxeko hizkuntza-proiektuari dagozkion datuak bete beharko ditu esteka honetan eskura duen aplikazio informatikoan: <http://www.proiektuak.net/>

4. Aurkeztutako eskaeran akatsen bat, datu ez-zuzenen bat dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar eguneko epea emango zaio eskatzaileari arazoa zuzen dezan.

8. artikulua. – Kudeaketa-organoa

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak.

9. artikulua. – Hautaketa-batzordea

Hautaketa-batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, eta hauek osatuko dute batzorde hori:

- Batzordeko buru den Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuko burua.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak izendatutako bi teknikari. Horietako batek idazkari lanak egingo ditu.



- Berritzegune Nagusiko bi aholkulari, hizkuntza-arloan adituak direnak.

10. artikulua. Aukeraketa-prozedura

1. Hautaketa-batzordeak eskaera bakoitza ebaluatuko du Ebazpen honetako III. eranskinean jasotako baremoa kontuan hartuta. Horretarako, behar diren txosten teknikoak eskatu ahal izango dizkie laguntza-zerbitzuei.

2. Hizkuntza-proiektu eleaniztunen artean, baztertuta geratuko dira III. eranskineko 1. puntuan (proiektuaren balorazio orokorra) jasotako baremoa aplikatuz 7 puntuko gutxieneko puntuazioa lortzen ez dutenak.

3. Hautaketa-batzordeak, egindako txostenak eta eskaerak baloratzeko deialdian ezarritako baremoa kontuan hartuta, ebazpen-proposamena prestatuko du, eta Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari helaraziko dio. Proposamen horretan honako hauek ere jasoko dira: hautatutako proiektuak eta haietako bakoitzari irakasleen prestakuntza-jardueretarako eman beharreko diru-horniduraren proposamena. Era berean, baztertutako eskaeren zerrenda eta haiek baztertzeko arrazoiak ere jasoko dira.

11. artikulua. -Prozedura ebaztea

1. Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak, hautaketa-batzordeak egindako proposamena ikusita, eskariak aurkezteko epea bukatu ondorengo sei hileko epean emango du deialdiari buruzko behin-behineko ebazpena.

2. Ikastetxe eskatzaileei ebazpenaren berri emango zaie, Hezkuntza Saileko Web-gunean argitaratuz eta ikastetxeko zuzendariari mezu elektronikoa bidaliz. Ikastetxeek hamar eguneko epea izango dute alegazioak egiteko.

3. Alegazioak aztertu ondoren, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak behin betiko ebazpena emango du eta ikastetxeei jakinaraziko die, aurreko atalean ezarritako eran. Ebazpenean jasota geratuko da, alde batetik, hizkuntza-proiektu eleaniztuna garatzeko aukeratu diren ikastetxeen zerrenda, emandako zuzkidura eta ordu-kreditua azalduz, eta bestetik, baztertuak izan diren eskaerak, arrazoia azalduz.

4. Epe horretan jakinarazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

12. artikulua. – Ziurtagiriak

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak 30 prestakuntza-ordu ziurtatuko dizkie, ofizioz, hautatutako hizkuntza-proiektu eleaniztunak dituzten ikastetxeko irakasleei, baldin eta partaide izan den irakasle bakoitzak proiektuan izandako dedikazioaren eta beharrezko prestakuntza-jardueretan izandako parte-hartzearen ehunekoa ikastetxe bakoitzean erabilitako ordu guztien %80tik gorakoa bada. Horretarako, 2017-2018 ikasturtea amaitutakoan, parte hartzen duten ikastetxeei ahala emango zaie partaide izandako irakasleei buruzko datuak sartzeko aplikazio informatiko honetan: <http://www.proiektuak.net/index.php>.

13. artikulua. – Ikastetxe onuradunen betebeharrak

Deialdi honetan araututako diru-horniduren onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Diru-hornidura zertarako eman den, horretarako erabiltzea; hau da, hizkuntza-proiektu eleaniztuna



garatzeko eta proiektu horri lotuta, irakasleei prestakuntza emateko.

- b) Lan-plangintza bat prestatzea urtero eta, hura bukatzean, dagokion Memoria egitea. Memoria hori 2018ko ekainaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da. Dokumentuok ikastetxearen urteko planaren eta urteko memoriaren zati izango dira.
- c) Konpromisoa hartzea hizkuntza-proiektuen garapenean egindakoa hezkuntza-komunitate osoari helarazteko, EAEko hezkuntza-administrazioak eleaniztasunari buruz antolatutako ikastaroetan, jardunaldietan edo prestakuntza-saioretan.
- d) Diru-hornidura emateko kontuan hartutako edozer aldatu bada, horren berri ematea Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari.
- e) Lankidetzan aritzea Hezkuntza Sailarekin prestakuntza-jardueretan parte hartu duten irakasleen jarraipen eta ebaluazioan, bai eta hizkuntza-proiektu eleaniztun guztien eta haiek gauzatzen diren ikastetxeetan daukaten eraginaren ebaluazioan ere.
- f) Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin eta EHUrekin lankidetzan aritzea, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako gradu eta praktiketako ikasleak onartuz, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntzako Unibertsitate Masterra ikasten diharduten praktiketako ikasleak ere, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezten laguntze aldera.

14. artikulua.- Ordainketa

Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da. Honako aurreikuspen hauen arabera izango dira ordainketa horiek:

- a) Lehen ordainketa emandako diru-laguntzaren zenbateko osoaren % 60 izango da, eta deialdiari buruzko ebazpena jakinarazi eta hilabeteko epean egingo da, tartean laguntzari berariaz uko egin ezean.
- b) Bigarren zatian gainerakoa ordainduko da, ikastetxe onuradunak 15. artikuluan aipatutako frogagiriak aurkeztu ondoren.

15. artikulua.- Laguntzen justifikazioa

1. Ikastetxe onuradunek, 2017-2018 ikasturtea amaitutakoan, 2018 ekainaren 15era arteko epea izango dute onartutako hizkuntza-proiektu eleaniztunari buruzko memoria aurkezteko. Memoriak atal hauek eduki beharko ditu:

- Hizkuntza-proiektu eleaniztuna zer neurritan gauzatu den ikastetxean eta hura orokorrean ebaluatzea.
- Egindako prestakuntza-jardueren zerrenda eta haietako bakoitzaren txostena, honako hauek adieraziz: edukia, partaide-kopurua eta ikastaroen emaitzak. Era berean, prestakuntza-jarduera bakoitzaren kostu ekonomikoa adieraziko da.
- Hizkuntza-proiektuak ikastetxean izandako eraginaren adierazleak: zenbat ikasle-taldetan ezarri den, eta hizkuntzetan izan dituzten emaitzen ebaluazioa, ikasturtearen hasiera abiapuntutzat hartuta; prestatu



ondoren, atzerriko hizkuntzetan B2 eta C1 maila dutela frogatzeko proba ofizialetara aurkezten diren irakasleak zenbat diren, eta haien ehunekoa.

2. Emandako ordu-kreditua erabili dela egiaztatzeko, ikastetxeek aurkeztu beharko dituzte egindako batzarren eta hartutako akordioen egiaztagiria.

3. Hezkuntza-administrazioak frogagiriak, fakturak edo agiriak eskatuko dizkio erakunde onuradunari, emandako diru-laguntzaren kontura egindako gastuen egiaztagarri. Laguntzak justifikatzeko ez dira aintzat hartuko proiektuaren prestaketa-, koordinazio- eta jarraipen-lanekin lotutako gastuak.

16. artikulua. – Jarraipena

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak jarraipena egiteko sistemak ezarri ahalko ditu, baita beharrezkotzat jotzen dituen datuak eskatu ere; eta hori guztia, onartutako jarduera bakoitzaren helburu eta emaitzak bermatzeko asmoz.

17. artikulua. – Diru-laguntzarako baldintzak aldatzea.

Laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, jakinarazi egin beharko da, eta gerta liteke horren ondorioz laguntza emateko ebazpena ere aldatzea.

18. artikulua. – Ez-betetzeak

1. Laguntzak jaso dituzten ikastetxeek Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuen konturako laguntza publikoen erabilgarritasunagatik ezarritako arau-hausteen erregimena bete beharko dute betiere, eta eman eta jasotako zenbatekoa itzuli beharko dute, bai eta aplikagarriak diren legezko interesak ere, honako kasu hauetan:

- Diru-laguntza ez erabiltzea hura eskatu eta eman zenean adierazita zegoen xede espezifikorako
- Diru-laguntza emateko oinarria izan zen jarduera ez egitea
- Ez frogatzea diru-laguntza eman zenean zehaztuta zeuden helburuetan erabili dela
- Oro har, ez betetzea azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan (EHAA, 1998ko urtarrilaren 19a), Ebazpen honetan edo emateko ebazpenean jasotako betebeharrak.

2. Itzulketa egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan ordaindu beharreko diru-laguntzen berme eta itzulerei buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta haien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/91 Dekretuan horretarako berariaz jasotako prozedura erabiliko da, bidezko diren gainerako egintzak alde batera utzi gabe. Kopuru horiek diru-sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorio guztietarako.

19. artikulua.- Datuak babestea

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, "19.a, Prestakuntza eta berrikuntza proiektuak" izeneko fitxategi batean sartuko dira, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira



biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honen parte hartzen duten lagunek baimena ematen diote Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari, beste erakunde publiko batzuetan, aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren frogatzeko.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 20an

Hezkuntza sailburuordea
MIREN MAITE ALONSO ARANA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN



I. ERANSKINA
LABURPEN-FITXA

IKASTETXEAREN DATU OROKORRAK:

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
Ikastetxeko ikasle-taldeen guztizko kopurua			
Proiektuan parte hartzen duten ikasleetako taldeetako erabateko kopurua			
Irakasle guztien kopurua			
2017-2018 ikasturterako hizkuntza-proiektu eleaniztunean parte hartuko duten irakasleen kopurua.			
Atzerriko hizkuntzan B2 mailako titulazioa edo goragokoa ziurtatzen duten irakasleen kop.			
Atzerriko hizkuntzaren bat irakasgai gisa ematen duten irakasleen kop.(ingeleza, frantsesa, alemana ...)			
Irakasgairen bat atzerriko hizkuntzan ematen duten irakasleen kop. (aurreko atalekoak aparte utzita)			

2017 2018 ikasturterako HIZKUNTZA-PROIEKTU ELEANIZTUNA OINARRIZKO EZAUGARRIAK:

Etap ¹	Maila	Taldea(2)	A/B/D Eredua	Ikasle-kopurua		Proiektuan partaide den irakasle-kopuru osoa		Ingelesez emandako areak	Ingeleseko emate orduetako zenbakia	Areak atzerriko beste hizkuntza batean emanda	Atzerriko beste hizkuntza bateko emate orduetako zenbakia	Euskaraz emandako areak	Euskarazko emate orduetako zenbakia	Gaztelaniaz emandako areak	Gaztelaniazko emate orduetako zenbakia	Atzerriko hizkuntzako proiektuak gehitutako emate orduetako zenbakia
				Emak.	Gizon.	Emak.	Gizon.									

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DATUAK LABURTZEN DITUZTE:

Jardueraren izena	Orduak	Jardueren plaza kopurua	AURREKONTUA		
			Jarduera gauzatzeko gastuak	Material gastuak	Kostua jarduerako
				Eskatutakoa, guztira	

¹ Hurrengo kodeak erabiltzea: Lehen mailakoa: 2; DBHa: 3; Batxilergoa: 4.

(2) Erregistro bat talde bakoitzerako betetzea

**II. ERANSKINA**
HIZKUNTZA-PROIEKTUA GARATZEKO PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DESKRIPZIO-FITXA

JARDUERAREN IZENA:

- 1.- Prestakuntza-jardueraren justifikazioa (proiektuarekin duen harremana).
- 2.- Prestakuntza-jardueraren helburuak.
- 3.- Edukien definizioa.
- 4.- Jardueraren egitura: non egiten den, egutegia, orduak guztira, zati bereziak eta haien denbora-antolaketa.
- 5.- Prestakuntzaren hartzaile diren pertsonen tipologia: ikasturte, etapa, arlo...
- 6.- Jardueraren ebaluazioa, jarritako helburuen arabera: ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak.
- 7.-Zein erakunde aurreikusi den jarduera emateko.
- 8.- Aurrekontua eta beraren justifikazioa.



III. ERANSKINA

ESKARIEN BALORAZIO TEKNIKOA EGITEKO BAREMOA

1.- Proiektuaren balorazio orokorra:

1.1 Ikastetxeak duen ibilbidea, eta hizkuntza-proiektua diagnosira doitzea:

- Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzekiko esperientzietan: arlo edo irakasgai bat atzerriko hizkuntzan ematea, hizkuntzen trataera integrala eta integratua, hizkuntzekin lotutako ikastetxeko heziketa-proiektuak osatzea.	- 1 -
- Proiektuaren eta diagnostikoan hautemandako beharrezaneren arteko harremanak.	- 1 -
- Proposatutako helburuen argitasuna eta zehaztasuna.	- 1,5 -
- Proposatutako prestakuntza-jardueren zehaztasuna.	- 0,5 -
- Prestakuntza-jardueren eta proiektuaren arteko harremanak.	- 1 -
- Zuzendaritza-taldeak aurkeztutako zuzendaritza-proiektuan hizkuntza-proiektu eleaniztunaren zehaztapena.	- 2,5 -
- Lankidetzan aritzea hizkuntza-proiektu eleaniztuna duten ibilbide bereko ikastetxeekin.	- 2,5 -
Gehienez ere	10 puntu

1.2 Proiektuan proposatutako emaitzen ebaluazio-plana:

- Maila ezberdinak aurreikusten dituen proiektua, batez ere, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 1. mailatik aurrera.	-2-
- Proiektuan markatutako helburuen lorpenaren ebaluazio-irizpide eta adierazleen zehaztasuna.	- 1 -
- Ebaluatzeko tresnak eta uneak finkatzea.	- 1 -
Gehienez ere	4 puntu

1.3 Proiekturako eskatutako aurrekontu orokorraren justifikazioa:

- Eskatutako aurrekontuaren eta proposatutako planaren arteko koherentzia.	- 2 -
- Eskatutako dirua banakatzeko azalpenak.	- 1 -
Gehienez ere	3 puntu

Gehienezko puntuak proiektuaren edukiengatik: 17 puntu

**2.- Irakasleentzat proposatutako prestakuntza-jardueren balorazioa:****2.1 Prestakuntza-jardueraren beharra, hizkuntza-proiektu eleaniztuna garatzeko**

-Especialistak diren eta ez diren irakasleen hizkuntza- eta pedagogia-eguneraketa helburu duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
-Edukien bitartez, atzerriko hizkuntza ikastea helburu duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
- C1 edo B2 hizkuntza-eskakizuna lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 50 eta 100 ordu artekoa izanda.	- 5 -
-C1 edo B2 hizkuntza-eskakizuna lortzea xede duten prestakuntza-jarduerak, haien iraupena 30 ordu edo gehiago eta 50 ordu baino gutxiagokoa izanda.	- 2,5 -
Gehienez ere	5 puntu

2.2 Eskatutako jardueraren zehaztapen-maila:

- Prestakuntza-jarduera justifikazioa definitzea (1 puntu emango dira prestakuntza-jarduera zergatik proposatzen den azaltzen denean).	- 1 -
- Prestakuntza-jardueran jarritako helburuetara egokitzea (puntu 1 emango da helburuak bat datozenean eskatutako prestakuntza-jarduerarekin).	- 1 -
- Aurreikusitako edukien argitasuna eta zehaztasuna (1 puntu emango da prestakuntza-jarduera bakoitzean garatuko diren edukiak zehazten direnean).	- 1 -
- Prestakuntza-jardueraren egitura zehaztea (1 puntu emango dira faseak, baldin badaude, egutegia, bereizitako parteak eta denboran dituzten mugak aipatzen direnean).	- 1 -
- Koherentzia ebaluazio-irizpide eta -adierazleak definitzean (1 puntu emango dira jarritako helburuekin bat datozen ebaluazio-irizpide eta -adierazle koherenteak aipatzen direnean).	- 1 -
Gehienez ere	5 puntu

Gehienezko puntuazioa prestakuntza-jarduera bakoitzeko: 10 puntu

Proiektuaren balorazio orokorra 1. atalean lortutako puntuen eta 2. atalean proposatutako prestakuntza-jarduera bakoitzeko lortutako puntuen batez bestekoaren arteko batura izango da.

Gehienezko puntuazioa: 27 puntu

